

Hitz ederrak eta zentzuz beteak entzun zituzten Hendaia-ko biltzarrean bilduek Sabino Arana Goiriren ahotik 1901eko irailaren 16an. Nire harridurarako, egia esanda, zeren beste zaletasun batzuetan ibilki ez bainaiz, antza, behar beste Sabinoz kezkatu edo zaletu. Aitortu behar, bada, ehun urte pasatxo haren hitzek ez dutela ez zentzua, ez hein batean gaurkotasuna ere galdu. Arana Goirik bertan aletutako urratsak, kostata bada ere, egin izan ditu euskarak era batera edo bestera: gehiago dakigu haren historiaz eta bilakabideaz, lan itzela egin da haren gramatika lantzen eta haren lexikoa biltzen eta eguneratzen, ortografia aspaldixko batu zen —bere proposamen ausartetako batzuk onarturik batu ere—, eskolan sartua da (ia) non-nahi, administrazioan lan egiteko (ia) ezinbestekoa da Euskadin, literatura eta zientzia-alorrak oro euskaraz lantzen dira, elebiduntasun garatu samar batek estaltzen ditu gure hiri eta herrietako paisaiak...

Hitzaldi hartan, Arana Goirik bi eskakizun nahitaezkoetat jo zituen euskarak bizirik iraungo bazuen: Euskal Herrian bizitzeko ezinbesteko bihurtzea, eta unean uneko gizarteak eskatzen dituenetan jarduteko egokitzea. Esan liteke bigarrena aski lortua dugula, goragoko adibideak lekuko. Lehenean dugu erronka, ostera, gaur egun ere, eta ez dago erronka handiagorik. Ezinbestekoa ote euskara Euskal Herrian bizitzeko gaur? Ezetz borobil batez erantzungo duzu, irakurle, jakina, eguneroko kontua baitugu eragozpenak aurkitzea, ia edonon, euskaraz bizitzeko. Borondatez gara euskal hiztun euskaldunok euskal herri gehienetan, ez beharrez.

Badira, ordea, behartuta euskal hiztun bihurtu den gizatalde handi xamar bi —pozik ala ez, hori besterik da—: batetik, gehienetan halako edo holako lana lortzeko euskara ikasi behar izan duten helduak eta, bestetik, txikitatik eskolan euskara ikasi eta euskaraz ikasi behar izan duten ume eta gazteak. Batean zein bestean diru publikoa erruz inbertitu da, eta ezin esan daiteke inbertsioa ez denik onuragarri izan, zeren eta bi gizatalde horiek —eta ez bestek— aldarazi baitute bat-batean euskal hiztunen kopuruaren beheranzko joera aspaldikoa.

Alabaina, euskaraz dakitenek gora egin dute, baina erabiltzen dutenek ez. Gure umeek erdaraz dihardute jolastokian eta kalean, eta adin batetik aurrera baita etxean ere; senar-emazte gazteek, biek euskara ikasi duten arren, elkarri erdaraz egingo diote, eta euskara haurrekin bakarrik erabiliko; batzuek ez bat eta ez bi erdarara joko dute solasaren erdian, berriz itzultzeko asmorik gabe; non zauden eta horren arabera ez zaizu burutik ere pasatuko dendan edo bulegoan sartu eta euskaraz hastea... Nola aldatu joera horiek? Nola zabaldu

EUSKARAK GU ERE BEHAR

BLANCA URGELL

EUSKALTZAIN URGAZLEA ETA EHUKO IRAKASLEA

Asko gara euskaldun domina jaiotzez oparitu ez zaigunok, kopetaren izerdiarekin irabazi dugunok. Beste garai batean, bidenabar esanda, Sabinok berak egin bezala. Gehiago eta gehiago izango gara, dena ondo bidean, eta gure ahaleginari esker, Euskal Herria euskalduz doa, eta gure seme-alabenganako transmisioari esker, beharbada euskarak aurrera egingo du

seme-alabenganako transmisioari esker, beharbada euskarak aurrera egingo duela. Eta euskara aldatuko dela, eta euskalki berriak agertuko direla euskara batuaren kumetxo, artean, suerte pixka batekin, arabera ezagutzera helduko naizelarik. Beraz, bada garaia onartuak izan gaituzen hautatuen baltsan, “arabarra eta, euskalduna al zara?” galdetu ez dakigun, onar dadin gure euskara den bezalakoa, guk inoiz ere izango ez dugun sena sakralizatu gabe, nahigabe baina ezinbestean euskararen arimari eragingo dizkiogun aldaketengatik soinekoak gehiegi urratu gabe. Agian, horrela, gutako minbera eta uzkurrenak ere gehiagotan ausartuko dira euskaraz egitera.

Euskarak gu denok ere behar gaitu. Gu, batez ere.

euskararen erabilera? Nork dauka giltza? Nork makila magikoa? Nork Asterixen edabea? Nork santu-santa guztien bitartekotza lortzeko otoitza?

Nik ez dakit. Badakit —eta badakizu zuk, irakurle— euskaren alde egiten dugun metro bakoitzeko erdarek ehun eta are mila metro gehiago korritzen dituztela. Eta badakit —eta zuk ere, beharbada— “euskara bizi dadin, indartu dadin eta bere lurrean zabaldu dadin” (Aranaren hitzak dira), euskara etxetik kanpo ikasi duten hiztunetan eta haien ondorengoetan dagoela gakoa. Oraindik ere, izen hoberik ezean, “euskaldun berri” deitzen ditugunetan.

Sabino Arana Fundazioak eskaini didan aukera hau —biziki eskertzen diodana— baliatu nahi dut ozen eta harro esateko asko garela euskaldun domina jaiotzez oparitu ez zaigunok, baizik eta kopetaren izerdiarekin irabazi dugula. Beste garai batean, bidenabar esanda, Sabinok berak egin bezala. Gehiago eta gehiago izango garela, dena ondo bidean, eta gure ahaleginari esker, Euskal Herria euskalduz doala, eta gure